

I.1. BOLEIBOLEAN

Laugarren mailako ikasleen artean boleibol txapelketa antolatu dute ikastetxean. Martin, Teresa, Dabid, Hamed eta Rocio talde berean daude eta entrenatzen hasi dira.



01

Sare ondoan salto egiten dugunean, gorputzeko zein atal edo aparatu erabiltzen dugu? Biribildu BAI edo EZ aukerak zure erantzuna adierazteko.

Salto egitean, erabiltzen dugu?

1. Muskuluak.
2. Ipurdia.
3. Artikulazioak.
4. Lokomozio-aparatua.

BAI edo EZ

Bai / Ez

Bai / Ez

Bai / Ez

Bai / Ez

Ondoko taulan taldekideei buruzko datu batzuk ikus ditzakezu. Arretaz aztertu.

Izena	Altuera	Pisua	Zapata zenbakia
MARTIN	140 cm	38 kg	36
TERESA	130 cm	34 kg	34
DAVID	135 cm	35 kg	34
HAMED	132 cm	33 kg	35
ROCIO	134 cm	35 kg	34

Hurrengo esaldien artean zein da **EGIAZKO** bakarra?

- A. Gehien pisatzen duena Rocio da.
- B. Davidek eta Hamedek pisu bera dute.
- C. Pertsona altuena eta pisutsuena Martin da.
- D. Hamedk erabiltzen duen zapata zenbakia 36 da.

Boleibolean jokatzera koan, bihotzeko taupadak eta arnasaldiak bizkortu egiten dira eta izerdia botatzen dugu.



Zergatik gertatzen zaigu hori?

- A. Izerdiarekin artikulazioen funtzionamendua hobetzen delako.
- B. Zenbat eta taupada gehiago izan, gero eta hobeto ikusten duzulako.
- C. Gorputzak behar duen oxigeno guztia edukitzeko.
- D. Arnasa hartzerakoan gorputzean sartzen zaigun beroa, izerdiaren bidez botatzen dugulako.

Ondoko taulan materialen propietate edo ezaugarri batzuk dituzu. Arretaz irakurri:

Propietatea	Adibide bat eta ezaugarriak	
ELASTIKOTASUNA	Goma: tiratzen dugunean askatzen badugu, bere forma berreskuratzen du.	
GOGORTASUNA	Mailua: bertan marra bat egitea oso zaila da.	
HAUSKORTASUNA	Kristala: kolpe batez apur daiteke.	
DILATAZIOA	Palomita: tamainaz handitzen dira berotzen baditugu.	

04

Taulako propietateak irakurrita, adierazi zein den baloiak egiteko kontutan hartzen den propietatea.

- A. Hauskortasuna.
- B. Elastikotasuna
- C. Gogortasuna.
- D. Dilatazioa.

